



GABRIEL ARESTI  
KULTURA ELKARTEA



# GABRIELEN LEKUA

Done Bikendi 2 48001  
Bilbo

Tel: 944 23 75 91 -

[elkartea@gabrielaresti.eu](mailto:elkartea@gabrielaresti.eu)

[www.gabrielaresti.eu](http://www.gabrielaresti.eu)



GABRIEL ARESTI  
KULTURA ELKARTEA

*“Poesia mailu bat dela esateko ausardia ukan zuen Gabriel Arestik, eta estetika obrerista baten aldekoa dirudien deklarazio honek ikusi batean uste genezakeena baino irakurketa anitzagoa du: mailua lanabesa da eta, ondorioz, poesia tresna da, ez helburu. Poeta, kantugile, hizlari, itzultzaile, antzerkigile, editore, hizkuntzalari... Arestiren lana prometeikoa izan zen, gizarte berri batek behar zuen hazkurri espirituala moldatu beharrak eragina, eta figurak maiz hartu zion gain obrari egunerokoan. Euskaldunen kontzientzia kritikoa bilakaturik, poesiaz etika egin zuen, testua ez zen izan mandatuaren agiria besterik. Mandatua bera obratzea zen, eta Arestik mailua hartu zuen eskuan harria moldatzeko, herria iratzartzeko.”*

Koldo Izagirre



## ZER DA “GABRIELEN LEKUA” SENTIKARIA?

GABRIELEN LEKUA proiektuan parte hartu dugunok **Gabriel Arestiren literaturak, jarrerak zein pentsamenduak gure sorkuntzan duen garrantzia** hausnartu dugu. Horren emaitza da **antzerkia, poesia, bertsoa, musika eta irudia** oholtzara igoko dituen sentikaria: sormenezko mailutasunari luzatutako begirada bat.

**Bi pertsonaiaren arteko talkak** gidatu eta lotuko du publikoaren arreta: Eme liburuzaina eta Lur poeta izan nahi duen gaztearen arteko hika mikak, hain zuzen ere. Bi pertsonaia hauen arteko elkarrizketaren harian, belaunaldien arteko aldea, Euskal Herriko historia, sormenaren zentzuaz egingo dugu gogoeta. Umorez, mailutasunez.

Haien arteko solasa jarraitzearekin bat, oholtza gaineko musikariek, bertsolariak, poetak **diziplina artistiko ezberdinen arteko elkarrizketa** eszenaratuko dute, artearen bitartez gaurkotuz gidoian adierazitakoak.

## ZEIN DA SENTIKARIAREN HELBURUA?

**Gabriel Arestiren pertsona eta bere lana eguneratzea** du helburu ikuskizun honek. Belaunaldi batzuentzat gogora ekartzea izango da; beste batzuentzat deskubrimendua.

Arestiren lekuak hartu ditugu horretarako ardatz. Bilbo, Baiona, Arantzazu, Atzerria, Ea... euskal literatura, euskal kultura... Eta bere izaeraren zein obraren alderdirik garrantzitsuenak lotuko ditugu leku bat edo bestearekin. Haurtzarora, euskara ikasteko erabakia, justizia sozialarekiko kezka, obra literarioa, hainbat pertsonarekiko gutunizketa, euskara batuaren sorrera, bere ideologia. Beti ere, Gabriel Arestirik poliedrikoena azaldu nahian, bere lan oparotasuna, aktibismoak, eztabaidarako zuen joerak isla izango dute emankizunean.

## NOLA SORTU DA SENTIKARIA?

**Zenbat Gara elkarteak eta Gabriel Arestiren familiak** sortu duten Gabriel Aresti Kultura Elkartearen ekimenez sortu da sentikari hau.

Sormen prozesuaren lehenengo urratsetan, honako sortzaile hauek eman zioten norabidea eta mamia, lehen materialak sortzearekin batera (gidoia, irudiak, kantuak): **Rafa Rueda, Alain Urrutia, Andoni Egaña, Oier Guillan, Zenbat Garako kideekin elkarlanean**. Ondoren, lan taldea zabaldu eta honako hauek batu ziren prozesura: **Ainhoa Alberdi** eta **Iraia Elias** aktoreak, **Naia Membrillera** eta **Iban Urizar** musikariak.

Zazpi lagun biltzen dira oholtzan zuzeneko emanaldietan, baina gehiago dira sormen prozesuan parte hartu dutenak, besteak beste, Javi Barandiaran (zuzendaritza artistikoa), Dejabu panpin laborategia (laguntzaileak zuzendaritza artistikoan), Idoia Beratarbide eta Maria de Bernardo (arropa eta atrezzoak), Ander Fernandez (argi diseinua), Jonan Ordorika (soinua)... eta baita aholkulari ugari ere: Hedoi Etxarte, Gotzon Barandiaran, Xabier Monasterio...



## ZER IKUSIKO DUGU ESZENAN?

**Diziplina artistiko ezberdinak elkarriketan** jarriko dituen ikuskizuna, **Gabriel Arestiren obra eta pentsamenduaren** bitartez ikuslearengan gogoeta eragitea xede duen sentikaria.

Arteen arteko uztarketa baino gehiago, elkarriketa da GABRIELEN LEKUA sentikarian ikus dezakeguna. Antzerki kontakizunaren harian, beste diziplinetara egingo dugu jauzi etengabe, diziplina bakoitzak Arestiren inguruko gaiak bere modura adieraziko dituelarik, etengabeko elkarriketa artistikoan:

-Andoni Egaña bertsolariak eta Oier Guillan poetak etengabeko harremana izango dute oholtzan, **poesiaren bitartez Arestiren ahotsa ekarriz, bertsoaren bitartez ahots hori egungo kezka eta gaietara lotuz**. Besteak beste, bere garaian Basarrik eta Arestik izandako eztabaidak islatuko dituzte.

-Musikari dagokionez, Rafa Ruedak bere **estetika musikal propiotik gaurkotu** ditu Arestiren ibilbidean **erreferentzialak diren hainbat poema**. Sarri izan da kantatua Aresti, eta Ruedak beste leku bat bilatu die letrei, **intentsitatea eta gertukotasuna** uztartuz. Ruedak Iban Urizar eta Naia Membrillera musikarien laguntzaz antzerkiko dramaturgiaren hariarekin bat kantatuko ditu kantak, eta zenbait eszenatan **soinu banda** sortzen ere lagunduko dute.

-Alain Urrutiaren irudiek **sentsazioen leiho bat** zabaltzeko asmoa dute, ilustratzea edo azaltzea baino gehiago. Irudi baten bitartez sentsazio bat iradoki egiten da sentikariko zenbait une klabeetan.

-Aktoreek **belaunaldi ezberdineko bi lagunen arteko solasaldia** erakutsiko digute, umorez, ironiaz. Ondorioa ezin argiagoa izango da: egia bat esatea izango dute xede, norberaren egia, gaurko egia. Bide horretan, ondorio ekidin ezina taularatuko dute: **hemen ez dago poeta mailurik, pertsona mailua baizik**.

## DISKO-LIBURUA ESKURAGARRI EMANALDIETAN

Sentikaria abiapuntu hartuta izaera propioa duen **disko-liburua plazaratu da**, emanaldietan ere eros daitekeelarik. Bertan papererako berariaz sortutako hainbat eduki topatzen ahal dira: Andoni Egañak idatzitako bertso sortak, Oier Guillanek eginiko sormen prozesuaren kronika pertsonala, Aresti ardatz hartuta **Hedoi Etxartek, Luigi Anselmik, Paddy Rekaldek eta Amaia Lasak** idatzitako artikuluak. Guztia Alain Urrutiaren diseinuaren begiradapean.

Diskoan berriz **sentikarian entzun daitezkeen kanta guztiak** eta diskoan soilik entzun daitezkeen beste bat: *Nire izena, Bilbaoko kaleak, Neure mendean, Zorrotzako portuan aldarrika, Gizonaren ahoa, Egia bat esateagatik, Preso gaudenon ahoetatik*. Haiekin batera Andoni Egañaren bertso musikatu batzuk eta Oier Guillanek deklamaturako Arestiren poema bi.



GABRIEL ARESTI  
KULTURA ELKARTEA

## **FITXA ARTISTIKOA:**

Oholtza gainean zazpi lagun: bertsolaria, deklamatzaila, bi aktore, hiru musikari.

Bultzatzailea: Gabriel Aresti kultur elkartea

Bertsolaria: Andoni Egaña

Deklamatzailea: Oier Guillan

Musika: Rafa Rueda

Ikus entzunekoak: Alain Urrutia

Aktoreak: Ainhoa Alberdi, Iraia Elias

Sorkuntzalagun: Xabier Monasterio

Musikariak:

Rafa Rueda: Gitarra eta ahotsa

Iban Urizar: Tronpeteta, korneta

Naia Membrillera: Perkusioa

Testua:

Gidoia: Andoni Egaña eta Oier Guillan, Gabriel Arestiren testuetatik abiatuta

Dialogoak: Ainhoa Alberdi, Iraia Elias eta Oier Guillan (eta Hedoi Etxarteren 'Hogeita bat proletario' poema)

Arropa eta atrezzoak: Marodi Sorkuntzak

Laguntzailea ikus entzunekoetan: Elisabeth Perez Fernandez

Soinu teknikaria: Jonan Ordorika

Argi teknikaria: Ander Fernandez

Eskerrik asko: Hedoi Etxarte, Jabi Barandiaran, Karmelo Landa, Mikel Martinez, Anjel Zelaieta, Susa, Zazpi t' erdi, Dejabu Panpin Laborategia, Metrokoadroka sormen laborategia, Errenteriako Udala.

## **HARREMANETARAKO:**

### **Banaketa – Komunikazioa:**

Gotzon Barandiaran Arteaga

[g.barandiaran@dijitalidadea.com](mailto:g.barandiaran@dijitalidadea.com)

[www.dijitalidadea.com](http://www.dijitalidadea.com)

### **Ekoizpen arduradunak:**

Rafa Rueda & Oier Guillan

[gabrielenlekua@gmail.com](mailto:gabrielenlekua@gmail.com)

679977276



GABRIEL ARESTI  
KULTURA ELKARTEA

**ARGAZKIAK (Argazkilaria: Joseba Barrenetxea)**



Done Bikendi 2 48001  
Bilbo

Tel: 944 23 75 91 -


[elkartea@gabrielaresti.eu](mailto:elkartea@gabrielaresti.eu)

[www.gabrielaresti.eu](http://www.gabrielaresti.eu)



GABRIEL ARESTI  
KULTURA ELKARTEA

**ARGAZKIAK (Argazkilaria: Joseba Barrenetxea)**





## AURKEZPENA: GABRIEL ARESTI KULTURA ELKARTEA

Gabriel Aresti kultura elkarteak idazlearen ondorengoek —Meli Estebanek, Gabrielen alargunak, eta hiru alabek— eta Zenbat Gara elkarteak osatzen dute.

Halabeharrak, zenbaitetan, itzulinguru bitxiak egiten ditu jendeen arteko elkar ezagutzak bideratzeko orduan. Gure arteko harremanak —zeharkakoak, lehenbizi, eta zuzenekoak, gero — aspaldi samarrekoak dira, izan ere. Hauxe dugu harreman horien kronologia laburra:

Olerkaria hil eta hiru urtera baino ez —1978an, beraz—, irakasle gazte batzuek Gabriel Aresti izena jarri zioten Bilbon sortu berria zuten euskaltegiari. Argi zeukaten ordurako, idazlearen eredura, bere ikasleak bilbotarrak, euskaldun berriak eta konprometituak eta aurrerazaleak izatea nahi zutela.

Geroztik, hogeita hamabost urte honetan, Gabriel Aresti euskaltegiak milaka herritar euskaldundu ditu, bilbotar idazlearen izena beti ere ohore handiz eramanez. Ziur gaude Gabriel bera harro egongo zela bera umetan olgetan ibiltzen zen Albia inguruan kokatuta dagoen euskaltegian makina bat herritarrek beren herriko hizkuntza ikasten dutela ikusita.

Halabeharrak bide egiten jarraitu zuen eta duela zenbait urte Gabriel Arestiren alabetako bat, Andere Bihotz, lankide izan genezan nahi izan zuen. Harro egon zen orduan Andere bere aitaren izena zuen euskaltegian euskara irakasteaz, eta harro egon ginen gu ere idazlearen alabetako bat lankide ez ezik, adiskide ere izateaz.

Halabeharrak, ezarian-ezarian, sareak hedatzen eta zirkulua ixten jarraitu zuen, eta beste urte batez Meli, Gabrielen beraren emaztea, ikasle ekarri zigun. Eta orduan denok egon ginen harro bihotz handiko halako emakume bat gutartekoa izateaz. Hala ere, harroen Gabriel bera egon bide zen, bere emaztea berak gaztetan belarrira olerkiak xuxurlatzen zizkion hizkuntza ezezagun hura ikasten ikusirik.

Azken urteotan, idazlearen urteurrenarekin bat eginez, “Harako Gabriel Aresti hartaz” izeneko zikloa antolatu izan du Gabriel Aresti euskaltegiak, haren bitzita eta lanak, gehienbat, ikasleen artean ezagutzera emateko asmoz. Ziklo horretarako ekitaldi xumeak prestatzean, bat etorri ginen alde biak —idazlearen senideak eta Gabriel Aresti euskaltegia kudeatzen duen Zenbat Gara elkarteak—, halakoak premia handikoak izanik ere, are premiazkoagoa zela Gabriel Arestiren ondare literarioa kudeatzeaz eta haren itzal soziala zabaltzeaz arduratuko zen elkarte bat sortzea. Horrelaxe sortu da orain aurkezten dizuegun Gabriel Aresti kultura elkarteak.

Elkarteak herritar eta erakunde guztien partaidetzara ireki nahian, laster “Gabriel Arestiren lagunak” deritzan saila jarriko dugu abian, herritar eta erakunde horiek elkarlanerako proposamenak egiteko modua izan dezan.





## TESTUINGURUA

Aspaldikoa dugu idazleak multzotan sailkatzeko ohitura, eta atergabeko sailkatze horretan, alde eta aldi guztietan idazle sorta murriz bat hautatu eta bereizi ohi dugu, beren obraren gailentasun eta gorentasunean gure baitako arazo, arrangura eta gainerako alderdi ezkutuak beste inork ez bezala azaleratzen eta azaltzen laguntzen digutelakoan. Horrelakoei klasikoak deritzegu, eta zertan edo hartan erantzun edo aholku beharrean gaudelarik, haiengana jotzen dugu argitasun bila.

Klasiko bilakatzeko prozesuak luze samar jotzen du eskuarki, eta idazle gehientsuek hil eta urte askotara baino ez dute erdiesten gu denon bide erakusle izatearen sari preziatua. Bestela esanda, idazle klasikoen multzo urrian sorta urriago batek baino ez du lortzen maila hori, bizirik dagoela.

Horixe da, hain zuzen ere, Gabriel Arestiren kasua, artean bizirik zegoela, beraren itzala Euskal Herriko bazter guztietara zabaldu baitzen. Gabrielen olerkiek paperetik ahora egiten zuten hegan, eta orduko belaunaldi gazteak, gizartea iraultzeko ahaleginetan, borrokarako eta kanturako gai bihurtzen zituen berehalakoan.

Eta Herio gaizto gupidagabeak berrogeita bat urte besterik ez zuelarik berekin eraman izan ez balu, Gabriel Arestiren uzta berez oparoa are oparoagoa izango zen, inongo zalantzarik gabe. Ordudanik hogeita hemezortzi urte igaro dira, eta, begien bistakoa denez, denborak handiagotu baizik ez ditu egin haren ospea eta eragina. Bateko, XX. mendearen erdialdean aro berri bat abiarazi zuen euskal letren baratzean, olerkien gaietan eta hizkuntzaren moldeetan itzelezko aldakuntzak eta berrikuntzak eginez, eta, besteko, geroztiko idazleei jorratu beharreko alorrak zein ziren erakutsi zien. Hortaz, ez da dudarik Gabriel Aresti euskal idazle klasikoa dugula dagoeneko eta betiko.

Urriak eta balio handikoak izanik, ordea, klasikoak txera eta maitasun handiz jagon eta babestu behar dira, urregorritzko bitxien antzera, gure bihotz-buruetan distiratzen segi dezaten.

Azken urteotan asko izan gara, Gabriel Arestiren ondareari dagokionez, garrantzizko gauza baten mira egin dugun euskaldunok, idazlearen ekarpen guztiak bildu, egituratu eta eguneratuko dituen erakunde edo elkarte baten hutsunea, alegia.

Hutsune hori estali guran, eta berandu bada ere, gaugerero Gabrielelek badu bere izena daraman eta bere izana Euskal Herriko eta atzerriko leku guztietara zabalduko duen elkarte bat, jarraian aurkeztu nahi dizueguna, hain zuzen.



## HELBURUAK

Elkarte honen helburu nagusia Gabriel Aresti Segurola bilbotar idazlearen ondare literarioa eta giza balioak zentzu orokor eta zabal batean ezagutaraztea da, hiru oinarri hauek ardatz hartuta:

- Haren euskalduntasuna, euskaldun izateko eta izanda egindako ibilbide oparoa eta sorkuntzaren bidez euskarari emandako maila gailena aitortuz.
- Haren unibertsaltasuna, Bilbotik munduari begira gizatasunaren balioak aldarrikatzeko egin zuen lan eskerga azpimarratuz.
- Eta justiziaganako maitasuna, bere idazlan guztietan ageri-agerikoa dena.

## LAN ESPARRUAK

Helburu nagusia eta hiru ardatzak —euskara,<sup>Done</sup> Bilbotik mundura eta justizia grina— gogoan edukita, Gabriel Aresti kultura elkarteak ondoko lan esparruak jorratuko ditu bere jardunean:

- a) Idazlearen ondare idatzia sailkatzeko eta antolatze lanak.
- b) Haren idazlanak osorik nahiz zatika berrargitaratzeko lanak, edizio kritikoak ere eginez.
- c) Euskara ikasleei eta euskaraz irakurtzen abiatu berriak direnei begira, haren obraren gainean eginiko moldatze lanak.
- d) Haren ekarpenak iraganetik etorkizunerantz eramateko balio dezaketen era guztietako eguneratze lanak.
- e) Ikus-entzunezkoen eta, oro har, teknologia berriez baliaturik, haren idatziak paperetik bestelako euskarrietara pasatzeko lanak.